

Nola biziberritu erakundeak?

Berritzea da zahartzearen kontrako tratamendu bakarra. Heldutasun aroan bizi diren erakundeen artrosiaz jardungo dut oraingoan.

Erakundeen gainbehera. Animaliek bezala erakundeek ere, sortu berriak direnean, berezko indarra soberan daukate. Bide bat egin eta gero, aldiz, puntxa galtzen dute maiz, eta errutina apatiko batean sartzen dira. Lege naturala dirudi, jaioberritan saltoka eta heldutasunean mantso.

Zergatik moteltze hori? Nire ustez bi fenomenok bat egiten dute erakundeen bizitasun-galera horretan. Alde batetik, jatorrizko planteamenduak, epe bat igarota, distira galtzen du. Oharkabean, bigarren plano batera pasatzen da erakundeari sorreran zentzua eman zion ideia eder hura. Bigarrenik, nahiko biologikoa eta ebolutiboa dirudien zerbait gertatzen da: organizazio batek bere bizitzaren lehen fasea pasa eta gero, hazteari utzi eta geratu bezala egiten da; hortik aurrera, biziduna den izaki ororentzat bezalaxe, erakundeentzat ere, bere buruaren iraupena izango da helbururik inportanteena. Horregatik, gorputz-instituzional hori kontserbadoreagoa egiten da, batzuetan larregi, ametsa ahaztu arteraino. Biziraupena bai, baina instintu horrek



Andoni Mujika Ulazia

AUTOERAKETA, KOOPERAZIOA ETA HEZKUNTZA
@mujikaandoni

Erakunde bat biziberritzeko lau eremutan eragin behar da batez ere. Lehena: pasibitatearen kontzientzia hartzea

ez luke estali beharko erakundearen txispa.

Irtenbideak. Erakunde bat biziberritzeko lau eremutan eragin behar da batez ere. Lehena aipatu dugu zeharka: pasibitatearen kontzientzia hartzea. Honatx beste hirurak:

– Hurrena, eta inportanteena, proiektu berri bat edukitzea da, izaera ez-

berdina izan dezakeen egitasmo sendo bat. Azaldu dezadan. Organizazio bat biziberritzea apustu handia da. Beraz, zeregin horretan arrakasta izateko potentziala daukan estrategia bat behar dugu. Horregatik, logikoa dirudi, biziberritze prozesu hori gure barne-gogoak esnatuko dituen instintu batean oinarritzea. Nire iritziz, instintu hori da zerbait berria deskubritzeko daukagun berezko desioa. Pentsatzen jarrita, berritasuna atsegin dugu, bizitzaren edozein esparrutan erakartzen gaituen zerbait da.

– Hirugarren aldagarria liderra da. Proiektu berria amets bihurtzen dakien liderra. Esan daiteke liderra eta proiektua imajinario zirrargarri bereko bi aldeak direla.

– Laugarrena kolektiboaren epe luzeko formazioa eta informazioa da. Zertan? Erakundearen izateko arrazoian (zentzuan), baita honek dauzkan desafio eta proiektuetan ere. Horrela, izaki kontzienteagoak eta helduagoak izan ditzakegu, eta hori inportantea da, beste neurriekin batera, organizazioak behar duen elikadura orekatzen delako.

Azken apunte bat: erakundeen biziberritze majikoak lortzeko azaleko errezeta batzuk ere ikusten dira han eta hemen. Baina ez dago laburbiderik. ■

 ARGIA

943 371 545
publiz@argia.eus
www.argia.eus/tarifak

Zure jendea,
zure hedabidea,
zure iragarkia.

Jarri publizitatea hemen